

EGUBERRI ONDORENGO II. IGANDEA (C)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Zugan sinesten dutenen argia,
bete ezazu zeure aintzaz mundua,
eta argi distizari horrek eraman ditzala herrialde guztiak
Zu ezagutzera.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Si 24, 1-4. 12-16

*Jaungoikoaren jakinduria
bere herri aukeratuaren erdian bizi da.*

Siraken liburutik

Jakinduriak bere burua goresten du,
bere herriaren erdian aintzaz betetzen da.
Goigoikoaren batzarrean bere ahoa irekitzen du,
eta Haren indardunen aurrean aintzaz betetzen da.
Bere herriaren erdian goratua izango da,
eta santuen batzar osoak ospe emango dio;
aukeratuen taldeek gorespenak emango dizkiote
eta bedeinkatua izango da bedeinkatuen artean.
Orduan, guztien Egileak agindu zidan,
ni sortu ninduenak etxola eraiki zidan,
eta esan: «Jakobenean bizi zaitez,
eta Israel izan bedi zure ondare».
Hasieran, gizaldiak baino lehenagotik, sortu ninduen,
eta inoiz ere ez dut amairik izango.
Etxola santuan, Haren aurrean, egin dut zerbitzu,
eta Sionen ipini dit bizitoki.
Hiri santuan eman dit atsedeen,
eta Jerusalem dago nire agintzaritza.
Izen haundiko herrian bota ditut sustraiak,
Jaunaren ondarean, Haren lurrean.

ERANTZUN SALMOA: Sal 147, 12-13. 14-15. 19-20

R/. **Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua.**

Edota: **Aleluia**

Jerusalen, ospa ezazu Jauna,
Sion, goretsazu zure Jainkoa.
Zure ateen sarrailek indartu baititu,
zure semeak zure barnean bedeinkatu ditu. R/.

Zure mugetan bakea ezarri baitu,
gari-mamiz ase zaitu.
Bidaltzen du lurrera bere mintzoa,
eta Haren hitza bizkor eta arin doa. R/.

Iragarri dio bere hitza Jakobi,
bere erabaki eta aginduak Israeli.
Ez dio egin horrelakorik beste herriri,
bere aginduak ez dizkio agertu besteri. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 1, 3-6. 15-18

*Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko,
Jesu Kristoren bidez.*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Espirituaren era guztietako bedeinkapenez,
zeruan Kristorengan bedeinkatu gaituena.
Harengan aukeratu baikintuen,
mundua sortu beino lehen,
Haren aurrean, maitasunez,
santu eta errugabe izan gaitezen.
Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko,
Jesu Kristoren bidez,
bere nahiaren onberatasunez;
bere Seme maitearengan
hain ugari eman digun graziaren aintzak
Bera gorespenez bete dezan.

Horregatik, Jesus Jaunarengan duzuen sinestea, eta santu guztienganako daukazuen maitasuna entzunda, etengabe ari naiz zuengatik eskerrak ematen, neure otoitzetan zuetaz oroitzuz. Jesu Kristo gure Jaunaren Jaungoikoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela jakinduriazko eta goi argizko espiritua, Bera ezagutzeko. Argi bitza zuen bihotzeko begiak, horrela jakin dezauen nolakoa den Haren deiaren itxaropena, nolakoak Haren aintzaren aberastasunak, Berak santuei oinordekotzan emanak.

EBANJELIOA: Jn 1, 1-18

Aleluia: Ik. 1 Tm 3, 16

R/. Aleluia.

V/. Aintza Zuri, Kristo,
hotsegina izan baitzara atzerriei;

aintza Zuri, Kristo,
sinetsia izan baitzara munduan. R/.

*Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Hasieran bazen Hitza;
eta Hitza Jaungoikoarekin zen;
eta Jaungoiko zen Hitza.
Hitz hau hasieran Jaungoikoarekin zen.
Dena Hitzaren bidez egina da;
eta egindakoetan ez da ezer Hura gabe eginik.
Harengan zen bizia.
Eta bizia gizakien argia zen.
Argiak ilunbetan argi egiten du;
baina ilunak Hura ez zuen onartu.
[Agertu zen gizon bat, Jaungoikoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen: argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Bera ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.] Hitza zen, mundura etorritako gizon oro argitzen duen egiazko argia.
Munduan zegoen;
eta mundua Haren bidez egina da;
baina munduak ez zuen ezagutu.
Bereetara etorri zen
eta bereek ez zuten onartu.
Onartu zuten guztiei, berriz,
Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea eman zien,
Haren izenean sinesten badute.
Hauek ez dira odoletik sortu,
ez haragiaren nahieratik,
ezta gizakiaren nahieratik ere;
Jaungoikoarengandik baizik.
Eta Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua;
eta geuk ikusi dugu Haren aintza,
Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza,
graziaz eta egiaz betea.
[Joanek hartaz egiten zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen, nik esan nuen Hura: Nire ondoren datorrena nire aurrean jarria izan da, ni baino lehenagoa baitzen».
Eta Haren betearen betetik,
grazia graziaren gain hartu dugu guztiok.
Legoa Moisesen bidez emana izan da, grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira.
Jaungoikoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen Seme bakarrak eman digu Haren berri.]

Oparigaien gainekoa

Santu egizkizu, Jauna, zeure Seme maitearen jaiotzaz,

orain eskaintzen ditugun dohain hauek,
Berak erakusten baitigu egiaren bidea,
eta Berak agintzen, zeruetako erreinu bizia.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Eguberrialdikoa

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna, apalik eskatzen dizugu,
sakramentu honen indarrez
gure bekatuak garbi daitezela
eta gure asmo zuzenak bete.
Jesu Kristo.